

OTSAILA 2021

Nondik gatoz?

HAUSNARKETA ETA AHALDUNTZE-SAIOAK

3 saiotan (Leitza, Lekunberri eta Irurtzun) Plazaolako Partzuergoko kideei zuzendutako barne hausnarketa eta ahalduntze prozesua:

Ekarpenak eta saioen emaitzak oso interesgarriak izan ziren. Hemen ikus ditzakezue:

[Amaierako txostena - Garrapo](#)

[Saioen laburpenaren bideoa](#)

Ondorio nagusietako bat bazkideen artean **ELKAR EZAGUTZEKO** beharra izan zen: nor garen, zer egiten dugun, nola lagun dezakegun, etab.



OHARRA: Iniziatiba honek Nafarroako Gobernuko Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritzaren laguntza eta kofinantzaketa du

Zertan ari gara orain?


APIRILA 2021

SAREAK EHUNTZEN PLAZAOLAN

Otsaileko saioen ondorioz, GARRAPOren laguntza teknikoarekin, **kideen arteko lehen topaketa bat egiteko ideia sortu zen, elkar hobeto ezagutzeko eta elkarlanerako aukerak trukatzeko eta aztertzeko.**

Partzuergoko hiru kideen laguntzarekin, oraingo honetan, goizeko topaketa proposatzen dugu Aralar mendian, **apirilaren 22an**, programa honekin:

- 10:00etan - Aralarko ALBI parkinetik irteera
- 10:30ean Miruako **Dani Torrente**. "Valores ecosistémicos de Aralar"
- 11:30ean **Itziar Insausti**. Experiencia regeneratiboa "Sentimos Aralar"
- 12:30ean Antsonea gaztandegia (**Maidier eta Peio**). Gazta daztaketa Bustinza bordan. "Saboreando Aralar"
- 13:30etan Albira itzuli



OHARRAK:

- **Izena emateko 948 507 204 telefonora (turismo bulegoa) deitu behar da apirilaren 19a baino lehen.**
- **Mendiko oinetako erosoak erabili eta ura eraman.** 2 km-ko ibilaldi labur bat egingo dugu mendian
- Lan-saio bat da, gure kideek Aralar mendian egiten diren jardueren eskaintza batzuk ezagutzeko eta **eskaintza bateratuak egiteko aukerak aztertzeko.** Jakina, Aralarren inguru zoragarriaz gozatuko dugu.
- Iniziatiba honek **TRAIL GAZERS BID** proiektuaren laguntza eta finantzaketa du.


MAIATZA 2021

Eta gero?

LAGUNTZA-TAILERRA - FORMAKUNTZA

Bi saio bultzatuko ditugu, **produktu turistikoak sortzeko**, eta, horretarako kideen arteko aliantzetan oinarrituko gara. Eta, era berean, gaur egungo **kanal eraginkorrenetan murgilduko gara produktu horiek komunikatu eta saldu ahal izateko.**

Saio horien bidez, **Plazaolan merkaturatze bateratuko esperientzia pilotua diseinatu nahi da udan..**



OHARRA: Iniziatiba honek **TRAIL GAZERS BID** proiektuaren laguntza eta finantzaketa du, eta prozesua erraztuko duen enpresa hezitzaile espezializatua izango du.

EBALUAKETA/ JARRAIPENA

UDA 2021

TRAIL GAZERS BID proiektuaren bidez, **esperientzia pilotu horren benetako eragina neurtuko da udan eta udazkenean.**